

Ostirala, 2013/07/05

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun
data2013
uztaila
4

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



SAN FERMINAK MARTINDEGIN

Umeentzako ekintzak eta sagardoa protagonista, jaiak hasteko

Gaur hasiko dituzte San Fermin jaiak Martindegi auzoan. Igandera bitarte luzatuko dira festak eta hiru egun hauetan ez da aspertzeko tarterik izango.

2013/07/05 - Ostirala

Kalejiran hasiko dituzte festak gaur, Martindegi auzoan. Hiru egun dauzkate aurretik giro ederrean ibiltzeko.

Aurreneko egun honetarako ume eta helduentzako ekintzak antolatu dituzte. 11:00-etan hasita, haur jolasak izango dira: eltxetxoak puskatzea, lokotxak biltzea, eta beste asko... Ondoren buruhaundietatik ihesi ibiliko dira txikiak. Umeen festak arratsaldean izango du jarraipena: margoekin duten trebezia erakusteko aukera izango dute lehendabizi. Eta segidan, Patxin eta Potxin pailazoek jarriko dute martxa. Hain txikiak ez direnek, Tiro Karabina lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute, 18:00etan.

Helduentzako festa, tirpa kontuekin hasiko da. Patata Tortilla lehiaketa izango da 19:00etan. Eta ordu eta erdi beranduago, urtetik urtera auzotar eta herritar gehiago erakartzen dituen Sagardo dastaketa: Zelaia, Oialume Zar, Oiarbide, Sarasola, Mendizabal, Etxeberria, Larrarte, Gurutzeta, Petritegi, Larre Gain, Iretza, Artola, Elutxeta eta Indioneke sagardoekin. Eguna bukatzeko, Jalisko band taldeak jarriko du, musika; eta bukaeran, sorpresa!

Auzo bazkaria, zaldi dema, bezperan

Biharko eguna, larunbata, izango da festetako egun nagusietako bat. Kalejirarekin hasiko dute eguna, San Fermin bezperan ere. Lokuluxka egin, eta auzoko baserrietan zehar, mobida antolatu dute, trikitixa doinuekin.

Eguerdi partean, gure artean ez daudenei omenaldi xumea egingo diete, Goiko Arisitan. Eta bazkalordua izango da eguneko zita berezienetakoa. Auzotarrak elkartuko dira, elkarrekin bazkaltzera. Joan nahi duenak aldeztu aurretik erosi behar ditu txartelak, Oialume tabernan.

Arratsaldea umeei dedikatutakoa izango da. Batetik, gaztelu puzgarriak jarriko diuzte; eta zezentxo eta zalditxoak ere izango dituzte, ondo pasatzeko.

Gauerdirako ordubeteren faltan, Abere Dema izango dute jokoan Hernaniko Imanol Paollaren eta Zerainen zaldiek. Eta beste behin, eguna bukatzeko, musika protagonista; kasu honetan, Laiotz taldearen eskutik. Goizaldean, Platano dantza lehiaketak jarriko du, saltsa.

Euskal Festa, San Fermin egunez

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



Igandean, San Fermin egunean, euskal festaren txanda izango da. Aurretik ordea, auzoko hildakoak gogoratuko dituzte, mezan. Bermuta hartuta, hasiko da Euskal Festa. Aizkoran, Eneko Otaño beizamarra eta Iker Vicente Otxagiako bikote gaztea ariko dira Jon Irazuren kontra. Harria jasotzen, Idoia Etxeberrria ariko da. Eta bertsotan, bi haundi: Andoni Egaña eta Amets Arzallus. Arratsaldean, Trikitilari eta Toka txapelketa antolatu dituzte. 19:00etan, Egaña eta Arzallusek bigarren saioa egingo dute. Eta festa bukatzeko, musika: Bide batez taldearekin lehendabizi, eta festei bukaera emateko kalejirarekin, ondoren.

EGITARAUA:

Uztailak 5, ostirala

11:00, Kalejira auzoan zehar.
11:30, Haur jolasak eta buruhaundiak.
16:00, Marrazki lehiaketa.
17:30, Patxin eta Potxin pailazoak.
18:00, XLIV. Tiro karabina lehiaketa.
19:00, Patata tortilla lehiaketa (Sansonategik babestua).
20:30, Sagardo dastaketa mundiala.
23:30, Dantzaldia Jalisko band taldearekin.
Amaieran, sorpresa!

Uztailak 6, larunbata

07:00, Kalejira auzoan zehar.
08:00, Lokuluxka.
11:00, Auzoko baserrietan zehar mobida trikitixaz alaituta.
13:00, Goiko Aristian oroigarri xume bat `gure artean ez daudenei´.
14:30, Auzo bazkaria. *Txartelak aurrez, Oialume tabernan salgai.
16:00, Gaztelu puzgarriak.
18:00, Zezentxoak eta zalditxoak.
23:00, XII. Abere Dema (Oialume garraioak babestua). Hernaniko Imanol Paolla eta Hernaniko Zerainen zaldien artean.
00:00, Dantzaldia Laiotz taldearekin.
Goizaldera, Platano dantza lehiaketa.

Uztailak 7, igandea

10:00, Auzoko hildakoen alde Meza (ondoren hamaiketakoa, Oialume tabernaren eskutik).
11:00, Bermuta.
12:00, Euskal Festa:
- Aizkolariak: Eneko Otaño beizamarra eta Iker Vicente otxagiak bikote gaztea Jon Irazuren aurka.
- Harrijasotzaileak: Idoia Etxeberrria.
13:00, Bertsolarien saio berezia. Andoni Egaña eta Amets Arzallus.
17:00, XVII. Trikitilari Gaztetxo Txapelketa.
18:00-19:00, Toka Txapelketa Nagusia (Gurutza Sukaldeak Antolatua).
19:00, Bertsolarien bigarren saioa: Egaña eta Arzallus.
20:00, Dantzaldia Bide batezekin.
23:00, Festei bukaera emateko kalejira auzoan barrena.



Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005



**Axeri
bila 2013**
klik hemen



**Liburua
erosteko,**
klik hemen



XII. AXERI BILA
EMAITZA GUZTIAK

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Gehigarria: Gabonak

GEHIGARRIA: GORA

EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA: ZAINDU
PAUSOZ PAUSO



**BESTE
HEDABIDEAK**
TOKIKOM

UKBERRI:
Laurita Silesena izango
da aurtengo Portu
Zaharreko jaietako
kartela

GOIENA:
Umorez eta ilusioz
ospatu dituzte San
Fermin txikiak
udalekuetako gaztetxoek

GOIENA:
Jaurilaritzak ziklista eta
gidarientzako gomedio
sorta zabaldu du sarean
